



Bertsio elektroniko honen egilea: Bittor Hidalgo  
Iturria: Loiolako Artxiboa.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazKristabaI.htm>

## **KRISTABAREN BIZITZA (1. arg.)**

**Agustin Kardaberaz**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**[KRISTABAREN BIZITZA,  
EDO ORRETARAKO BIDE ERRAZA  
BERE AMABI PAUSOAKIN...]**



## [BOST-GARREN PAUSOA]

[...] soñeko erropa, edo oiñpeko lurrari baño?

Burutan artzea konfesioa, ta komunioa dala bakarrik, pekatuan erorzen zeraneko, au da utsegite bat, zeñekin deabruak burla zuzaz egiten duen. Oiek dirade erremediarik, ta janaririk bearrenak, Jesu Kristok gure animai utzi ziozkanak, ta animak beti bear dute beren janaria; korputzak bezala, ez dutenean Bizitza, edo indarrik, oriek idorotzeko, ta daukazite-nean, ez galtzeko: Ezpadituzu maiz garbitzen Konfesioarekin zure barrengo basterrak, nola naizu ez betetzea autsez, amamaz, eta arrez? Ar ezazu, bada aurrerako oitura konfesatzeko, ta komulgatzeko, zorzian bein, edo amabostean, Konfesoreak esango dizun bezala, edolarik kostu gutxiagorekin konfesa zaitean, denbora luzekoaz baño, edo konfesioen peligroragatik. Baña ez dezu examen, edo garbitze orrekin kontentu geratu bear. Zein da pobrerik etorkari, edo kanpoko adiskide andi bat uste duenean, etxea garbitu, eta beste gabe geratzen danik? Oitu zaitez, bada, lenbikoa, zure Jainkoa artzeko lenagoko egunetik, egitera limosna, edo penitenziaren bat, erregutzera Santuaren bati, edo zure atsegiñen bat utzitzera aren izenean. Bigarrena artu horduerdi bat zure Jainkoarekin bakarrik egoteko, aren Pasio, edo heriotza, edo onelako pauso, edo gauza, geiena zure pekatuen damutasuna ekarriko dizunen batean, pensatzen, obeto artzeko zure Jauna.

Zer damukizun andiagorik! Artzea askotan Sakramentu oiek (askok oi dituzten bezala) onelako alegiñik gabe bizimodu berririk atera gabe! Alaxie oitu, ta beste gabe, besteak baño gutxiago ez izateagatik. Ai! ta oien geienak bearbada irizten dute Jainkoaren juizioa, San Pablok dion bezala. Baldin zure mendekorik badezu, ez utzi, iñor ere geldi dedilla, illoro konfesatu gabe: ta lenagoko egunean irakurri erazo ezazu guztienzat liburu bat, edo azkenean dagoen liburu onetako doktrina, orrekin presta ditezen bihotzak, eta doktrina berriro irago dedin. Baldin ezin eraman badezu, zure morroiari egun bakar batean aztutzea zaldi, edo mando bere kontura daukanari jaten ematea; zer kontu Jainkoak artuko dizu zure humean, eta mirabeen animaz, zeñak zure eskuetan, bere odolaz erosirik, utzi zituen, baldin utzitzen badiezu ill osoak iragotzen zeruko ogia gabe? Lenago izan bear dute zure etxean abereak, animak baño? O ezagutzen bazendu zein gutxi dijoan zugandik abere bategana, besteen animak, ta zureari kentzen diozunean Jainkoaren janari au! San Antoniok (b) konta-

tzen du, deabruzko gizon batek ezin bere alegiñaz bereturik andre eskondu bat, bere gaizkin, edo sorginduriakin ere, ala Jainkoak nairik biurtu zan andre, ikusten zutenen begietan beor baten anzera. Estuturik onen senarra, eraman zuen soka batekin San Makario ejiptokoagana, erregutzen ziola Jainkoagatik, arren bien urrikaldu zedilla, ta bere anrearen lengo anz, eta idurira biur zezala beor ura. Eranzun zion Santuak: Ezta au beorra, ta eztu orren anzik, ezpada zuen begiak dira zaldienak: eman zion hur bedekatuaz, ta biurtu zan len zan bezela anrearen anzera. Baña esan zion, hura izan zala Jainkoaren kastigua, zeren bost aste aietan komulgatu etzan, ta Eleizan gutxi sartu zan: orrekin bialdu zuen erakutsirik, eta emendaturik.

(a) *Casar I. II. c. 38.* (b) *S. Anton. p. 2. sum. Mor. tit. 9. 0. 9. &. 3. fin.*



## SEIGARREN PAUSOA

### GOIZORO PROPOSITUA EGITEA, EGUN ARTAN EZ PEKATURIK EGITEKO, TA MEZA ENZUTEA

- G. Zer egin bear du Kristauak goizean jaikitzean bereala?  
E. Ematea Jainkoari edolarik egun onak.
- G. Zer eratan, edo nola hitz egin diozakegu, edo zerbait esan?  
E. Lau gauza egiñarekin laburtxo, baña belauniko, bear dan bezela.  
G. Zein dira lau gauza oriek?  
E. Eskerrak eman, eskeñi, hitz eman, ta erregutu.  
G. Zerzaz eskerrak eman bear dizeagu?  
E. Egin dizkigun mesede guztiaz, ta batez ere zeren egun artaraño gorde gaituen.
- G. Zer eskeñi bear diogu bere honrarako?  
E. Gure alegin, hitz, eta pensamentu guztiak Jesu Kristoren irabazi guztiakin.
- G. Zer hitz eman bear diogu goizetik?  
E. Ez ofenditzea egun artan, ta geiena gure gaitzik jakiñen agintarian.
- G. Zer eskatu bear diogu?  
E. Bere grazia, hitz au betetzeko, Santuaren bat bitarteko degula.  
G. Ta ezin ikasi duenak orrenbeste, zer egin dezake?  
E. Zerbait Ama Birjinari, ta Aingeruari erregutu. Baña ez beñ ere hitz au eman gabe utzi.
- G. Zer egin bear du au ausitzen duen baikoitzean bereala?  
E. Eskua bihotzaren gañean ifini, eskatzen diola Jainkoari barkazioa, edo mingañari ozka eldu.
- G. Zerekin goiza sellatu, edo koroatu bear da?  
E. Debozio guztien buruarekin, zeña dan Meza enzutea, eta Aldarrean urrena bisitatu.

### EMENDIK ATERA BEAR DANA

Errelojurik onena zure osasuna, anima, ta etxea zuzen erabiltzeko, da idukitzea alegiñaz, hordu seinalatua jaikitze goizean, ta etxaratzeko arratsean: *Bear degu* (esatendio (a) Salomonek Jainkoari) *aurea eguzkiari artu, guk zu bedeikatze, ta adoratzeko goizetik*. Nai badezu, orrela, zugana

Jainkoaren bedekazioa ekarri egun guztirako, asi ezazu Jainkoagandik eguna, ta hitz sendo batekin ez bera ofenditzeko, beste etxeko egitekoe-tatik baño lenago, guztiaren bedekazioarekin dijoan. Baldin goizean lenbiziko gauza edozein etorkari, edo bidezko lagunekin egiten dezuna bada, egun onak ematea, ta zerbait esatea, zure Jainko, ta Aingeru, zu lotan zauden artean, lagundu, ta gordetzen zaituztenak, ez dute beste ainbeste bear? Baldin ematen badizu Jainkoak egun osoa bearra egiteko, ta jateko: ez diozu emango edolarik egun orren asiera, berea duela? *O Kristaua* deard egiten dizu (b) San Ambrosiok, *ez dakizu egunoro Jainkoari zor diozkatzula zure bihotz, eta hitzen estreñiak?* Ez dezu bada, zuk esan, ez jakinsu izan arren, ez dakizula zer egiñ, edo zer esan Jainkoari. Zure bihotzak garbiro berez esaten diona, propositu ez ofenditzekoaz gañera, izango da seguru onena. Baña ala ere nai badezu modu labur bat, gorde dezakezu, ta erakutsi etxeokoi, urrengo au.

Jaikitzean, jantzi ta bereala, jarri zaite belauniko, ta esaiozu Jainkoari, zure errezoaz gañera hitz oiekin edo oien gisa. 1. *Nere, Jainkoa, nik ematen dizkitzut milla esker, zeren egun au eman didazun zu serbitzeko, nik infernuan egotea merezi nuela*. Aita gurea, ta Abe Maria. 2. *Nik eskintzen dizkitzut, Jauna, nere pensamentuak, hitzak, ta obra egun onetako guztiak, Jesu Kristoren odol, ta irabaze guztiakin, zure honra, gloriosorako*. Aita gurea, ta Abe Maria. 3. *Nere alegin guztiaz ematen dizut hitza gaur zure graziarekin ez zu ofenditzeko, ta geiena onelako gauzatan, zeña dan nere peligrorik andiena*. Aita gurea, ta Abe Maria. 4. *Indazu, Jauna, zure grazia: ta zu nere Santu (S.N.) izan zaite bitarteko, nik nere hitz au betetzeko*. Aita gurea, Abe Maria, ta Kredo bat. Enkomenda zaite egunoro, ta ziñez Jesusen Bihotz guziz Santuari, zurea ematen diozula bereagatik, egun artan garbia gorde dezan. Erregu zaiozu Ama Birjiñari, zure Aingeruari, ta egun orretan bitartekotzat artu dezun santuari. Onetako zure Santu adiskideak banaka, edo biñaka asteko egunetan bear dituzu artu. Baldin au luze baderitzazu esaiozu Jainkoari:

*Esker milla, Jainko andia,  
goizera eldu naizalako:  
lagun zadazu aurrerako  
peka ez dezadan, Maria.*

Egizu asmo zure Jainkoari, ta zure zor guztiak egun artan eranzuteko, ta aren grazia, ta Induljenzia gustiak irabazteko.

Gauza bi guztien gañean dira bearrenak goizean. Lenbizikoa, propositu au, ez Jainko ofenditzeko, egunoro egiten dezula, atzeneko zure



Bizitzaren eguna baliz bezala, zeren ori da anima geiena sendotzen duena, ta pistutzen beste deboziak, ta itxitzen etsaiari atea egun guztirako, ta ala asko enkargatzen dizu San Franzisko Salesek. Bigarrena da egunoroko Meza santua, zeña are geiago enkargatzen dizun berak: dio Santuak. (c) Mezagatik dala; *Espirituaren langai guztien eguzkia, Kristaben Relijioaren asiera, debozioaren bihotza, ta piedadearen anima Misterio ezin esan ditekera*: ta azkenik esaten dizu. *Egzu, bada, alegiña ekusteko egunoro Mezako Sakrifizio santua*. Ta ez niri eranzun, ezin dezula, edo lekurik ez dezula, zeren idukiko dezu, goiz jaikitzen bazera, bildur izan diteke, geiago dala nagitasuna, edo etxeko gauzen billa bear geiegia. Baña, nola naizu Jainkoak oriek geituztea, bedekitzea, ta gordetzea egunaz, baldin nai ezpadituzu utzi Jainkoagatik, ta aren kontura ordu erdi batean?

Gizon jakinsunak (d) kontatzen dute bizi zirala erri batean bi nekazari bear modu batekin. Batak zituen gurasoak, emastea, ta humeak, zer mantendu: enzuten zuen egunik utsegin gabe Meza, ta bere bearrarekin zuen guztirako, zeren Jainkoak, egiten zion onik asko. Beste gizonak, bere emaste bakarra baizik eztzuela, beti bearra eginaz, gau ta egun, ta Jai egunetan ere, Meza gutxi ekusten zituela, beti bizi zan nekez, ta goseak. Ekusten zuen onek, ezin ekusiaz bazan ere, beste lagunari zein ondo zijokion, ta galdetu zion bein batean: Nondik ateratzen dezu orrenbeste irabazi, ta ainbeste jenderentzat nola dezun etxean? Bada nik nere anre bakarrekin naizala, bear geiago egiñaz ere, askoz gutxiago det, edo ez det ezer. Orduan eranzun zion egunoro Mezatarra joaten zanak, urrengo goizean erakutsiko ziola nondik ateratzen zituen bere ondasunak. Urrengo egunean joan zan au bestearen etxetik, ta eraman zuen berekin Eleizara. Meza bat enzuen, ta a Dio esanzion beste gabe. Beste ainbeste egin zion bigarren egunean. Baña hirugarrenean zijoala Eleizarako beste nekezkoaren etxetik, esan zion onek: Adiskidea, nai badet nik Elizara joan, zure bearrak ez det, badakit ondo bidea: nik eskatu nizuna zan erakustea, nongo urre obitik ateratzen zeñituen ondasunak. Eranzun zion gizon debotoak, ark eztzeukala beste urre obirik ateratzeko bear zuena, Meza Santua baizik, eta gero bere bearra: eta berak ere ori egiten bazuen, beste ainbeste seguru gertatuko zitzaioala. Damaturik bestea bere billa bear geiegiaz, artu zuen mandatua: egin zan Meza egunoro enzutera, ta Jainkoa asi zan bera bedekitzean, ta bear zituen ondasun guztiak ematen.

(a) *Sap. 16. 27.* (b) *S. Ambr. in Ps. 118. Serm. 19. n. 4.* (c) *Sales p. 2. Introd. c 14.* (d) *Sur. in vita S. Ioan. Eleem. 23. Ian. P. Al. Rodr. t. 2. t.G 8. c 16.*

## ZAZPIGARREN PAUSOA

### JAUNGOIKOARI OBRA BAKOITZA, ETA EGITEKOAK ESKEÑETZEA BERAREN GLORIAGATIK

G. Nola billduko du Kristabak egunoro ondasun asko?

E. Lurraz urrea egiñaz, ta lurrarekin zerua irabaziaz.

G. Nola egin dezake Zeruko bizimodu, ta bear berri ori?

E. Jan, egon, ebilli, edo bear egin baño lenago Jainkoari guztia aren borondateagatik emanaz.

G. Ta orrela irabazten da Zerua lurreko bear, berez ezer ez diran oriekin?

E. Bai, ta batzuetan Zeru geiago, errezo, ta erregu askorekin baño.

G. Zer da, beñ ere aztu bear ez dana, Jaunari egiteko bakoitza eskeñtzean?

E. Jesu Kristoren irabazi andi, ta odol preziatuarekin batean guztiak ematea.

### ONDORENGOA

Ez dezazula, nerea bezela, artu mandatu au, ezpada Jainkoarena bezela, zeñek guztioi esaten digu: *Naiz jan, naiz edan dezazutela, edo edozein beste gauza egiten zautela egizute guztia Jainkoaren gloriarako*. (a) Baña ez dezu bearbada ondo agertu ondasun andi gorderik dagoena aginde onetan, ta edozein gauza Jainkoagatik egiten danean. Bokadu bakar bat, bihotz onarekin, Jainkoak nai duelako, artzeak, geiago balio du aren aurrean, munduko aberatsen ondasun, irabazi, ta ahalegin guztiak baño, edo obeto esateko, zer ikusirik orrekin ez du. Farradura emango dizu aditzeak lotan, ta jaten zaudela, Zerua irabazi detzakezula. Baña negar egiteko gogoa niri ematen dit, ekusteak, orrelako ez jakintasun, ta ajolagabetasunez, egunoro Zeru asko galtzen dezula. Ta zer uste dezu, eskatzen dizula Jainkoak, ori irabazteko? Besterik ez, bihotz on bat baizik, ta egiten dezun, ta jaten desun ori bera, eskeñi zaiozula Jainkoari bere gloriarako. Zer gutxiago, ta errazagorik eska dizakezu? Edo zer erokeria andiagorik, gauza egin bear dezunaz; ez irabazi nai izatea baño? Egizu, bada edolarik egin bear orretatik birtutea, ta arratseko aurkituko da zure anima ustez ustegabe ondasun andiak. Zer izango da heriotzako hordurako? Zoaz jatera, edo lotara? Bada esaiozu Jainkoari era onetan, edo bestela. *Nere Jainkoa, nik eskeñ-*



*tzen dizut janari au, edo lo au zure amorioagatik. Zoaz bear egitera? Esaiozu bada lenago Jainkoari. Nere Jainkoa, nik eskeñtzen dizut bear au zure amorioagatik, nere Jesus onak egin zuen, ta erago zuen gustiarekin zuri atsegin egiteagatik. Onela esan diozake zure bihotzak ori bera, edozein gauza, lan, edo egiteko baño lenago. Ta nai badezu asko aurreratzea zure anima irabazi onetan, noizean bein esan dezake berriro, bearraren asieran, baita dirauen artean ere: Jauna, zure amorioagatik, zure honra, ta gloriako, zure naia egiteagatik, zeren zuk onela naizun. Edo esan erregu latinezkoa: *Actiones nostras quæsumus*, &c. Zeñetan Eleizak erakusten digun debozio au.*

Orrekin ain txikia iduri arren ere denbora gutxian aurreratuko da zure anima, zuk usteko dezun baño geiago, ta gertatuko da askotan, atxurlari, nekazari, edo atso batek hiruten, atxurrean, edo bearrean, egun batean fede, ta garbitasun onekin Jainkoarekiko geiago erabaztea, Relijioso batek, edo besteak barau egun, ta azote askorekin baño. Zer izango dezu bada, Jainkoaren aurrean, ez egiteko au, ta debozio onekin asko mesede irabazteko? Ezin esango dezu onek denbora asko eramaten dizula, bada denborarik kendu gabe, laguntzen dizu irabazten denbora guztia. Onekin betetzen dezu Jainkoaren etxera, edo kriatura guztien egitekorik, ta finik goiena, zeña dan beren egillea (Kriadorea) beti alabatzea, S. Agustinek hitz oietan dionez. (b) *Alabatzen dezu Jainkoa zure bizi bearrean, alabatzen dezu jatean, eta edatean: alabatzen dezu oiean atsedeten zaudenean; alabatzen dezu lotan zaudenean, ta alabatzen ez dezunean ere.* Onekin egiten dezu erraz liburu Sagradu, ta Santuak ainbeste agindu, ta esanikako lan miragarri, ta probetxu andiko au, zeña da Jainkoaren aurrean beti ibiltzea. Onekin sendotzen da San Gregorio Nisenok (c) diona: *Baldin egitekoaren aurrean badijoa erregua, estu pekatuak aurkituko nondik zure animan sartu.* Onekin azkenik zure lanak egiten, ta atzenzen dituzu guztiz ondo, bada asitzen dira Jainkoagandik.

Bost Santugille (d) Erroman bizi ziran, beargille onak, ta berdin eza-gun ziranak; baña ez orren berdin beren animetan, ta eskuetan doatsu ziranak; zeren oietatik lau ziran Kristabak; ta oiek egiten zituzten lan guztiak ondo irteten zitzaizten, ta erraz, baña bostgarrena, zeñari zeritzan Sinplizio, zan jentilla, ta txit bere eskuetan doakgabea, zeren bear egitean ausitzen zitzaizkan lanbeza, edo erramienta asko, ta orrekin lanak ere erteten zitzaizkan karestiro. Ekusirik Sinplizio, onelakorik eztzitzaiela gertatzen beste lau lagunai lanbeza argalagoakin bearra egin arren ere, galdetu zion Sinforiano, guztien buruari, bein batean, zertan ote zegoen au? Ta Sinforianok eranzun zion. Jakin beazu, ez degula guk bearririk iñoiz ere asitzen, Jainkoari bihotza lenago jaso, ta lan hura eskeñi gabe, deituaz aren

izena, ta eskuatuz bere grazia: orrekin aren Majestadeak laguntzen digu dakutsun bezela. Argiturik begiak Sinplizio onekin, ta beste errazoiakin, artu zuen gure fede santua, asi zan andik aurrera deitzen Jainkoari bere bear guztiak abiatzean, ta asiera orren onarekin guztiak irteten zitzaizkon ondo. Ta ori baño geiago dana bear Santu, ta garbi orrekin, beste gauza andiagorik oiez ez dakigula, bostak irabazi zuten martirioko, ta Zeruko gloria, ta Eleizak ezagutzen ditu Santutzat.

(a) 1. Cor. 10. 31. (b) *S. Aug in Ps. 146. v. 1.* (c) *S. Greg. Nis. Orat. 1. de Orat. Dom. sub init.* (d) *Ribaden. 8. Novemb.*



## ZORZIGARREN PAUSOA

### KONZIENZA BEGIRATZEA, TA ERROSARIOA ESATEA

- G. Zerk izan bear du animaren atsedena gau oro?
- E. Emateak bere afaria, gorputzari bezela.
- G. Zer afari izan diteke indar aiñ andikoa, nola laburra?
- E. Billatzea, ta izagutzea damuarekin egun artako kulpak.
- G. Orren atsedea ona, ta andia ekarriko dio animari examen onek.
- E. Bai, ta aienatuko deabrua animagandik, oietik, ta etxetik.
- G. Zergatik iges eragiten dio orrela examen konzienziak?
- E. Zeren baster egunoro garbitzen danean, ez dute armiarmak egon

nai.

- G. Ta zer beste deboziorekin koroatu, ta atzendu bear dute gauak?
- E. Ama Birjiñaren Errosario, edo Koroarekin, guztiak batean, ta belauniko.

### ONDORENGOA

Ez da inor ondo etxea darabilenik, zeñak ez duen asentatzen, edo gutxiena kontu ateratzen, egun artan zer artu, ta zer eman duen, ta ez da asko izango zuk gordetzea kontu au berau Jainkoarekin, ta zure animarekin. Baldin gau oro artzen badiozu kontu zure gaitzen damuarekin, zer gozaldi geiago, ori egiñik idukitzea baño konfesatzen zeran egunerako? Badakust, baldin bildurtzen ez bazera pekatuan oieratzeaz, bildurtzen ez bazera illik aurkitzeaz, ta kondenaturik, askori gertatzen zaion bezela, ez duela onek zurekin hitz egiten: zuretzat eztago infernua baizik; bada onen ez bildurtze ori bera, da orren asiera bezela. Baña bizi bazera bildur onekin (zeña daukaten Santuak ere, beren bihotzetan ezer ez idukiarren) zeren ez dakizu zer gerta dakikezun gau artan, ez dezu bide oberik aurkitzeko, ez atsegin andiagorik oieratzean, ez atsedea andiagorik lo egitean, ez pake andiagorik jaikitzean, ez seguridade andiagorik etsaiagandik, ta zure animaren irabazi andiagorik, gauoro animaren kontu au, zure utsegi-teen damuarekin egiteaz baño.

Ozta da Santu, ta Maisurik pauso au asko enkargatzen ez duenik, zeren ain bearra dan, ta ain argi errazoiak egiña, zeñean Jentil askok ere, ta, gure esaeran, oien Maisuen buru guztiak egin oi zuten, ta erakutsi animen osasuna, ta atsedenerako. *Zer gauza* (a) *ederragorik*. (dio oietatik batek)

*Egunaz egin dedan guziaren kontu au artzeko oitura baño?* Zer loa artzen da ezagutu ezker bere burua? Zein pakezkoa, sendoa, ta ariña? Ni baliatzen naiz pake onez, ta egunoro salatzen, eta juzgatzen det nere burua. Ez dezazula, bada, nai jentil oiek izatea zure lotsagarri juizioko egunean, orain ez badira ere. Askok oietatik egiten zuten kontu au birretan, ta hiru bider. San Buenaventurak dio egin dedilla zazpi bider. San Dorotheok, ta Santa Teresak bere abisoetan, egin dedilla egite bakoitzean, eta ordu oro. Baña nik orain eskatzen dizut, egin dezazula gabaz, orain esango dizkitzudan hiru gauza oiek:

Lenbizikoa: emaitzatu Jainkoari eskerrak bere mesede andiakgatik, ta zeren egun orretan gorde zaituen, ta eskatzaiozu bere argia, ta grazia ezagutzeko, ta kentzeko zure kulpak. Bigarrena: Zoaz begiratuaz, zertan utsegin dezun egun orretan pensamentuz, hitzez, ta obretan, ta are geiago gaitz andi artan, zeñean eman ziñion hitza goizetik ez erortzeko, ta begira ezazu zer bestetan utsegin dezun. Hirugarrena: gauza onik egin badezu, emaitzatu Jainkoari eskerrak: gaitz egin, ta utsegin guztien barkazioa eska zaiozu guziz bihotzetik, hitz ematen diozula ez geiago egiteko, onesdamusko egite batekin. Erregu zaiozu Ama Birjiñari, Aingeru zure Zaiari, ta zure Santu goizean bitarteko artuzen duenari. Au gustia hordu laurden bateko lana da, gutxi gora bera. Baña denborarik geiena damu onetan, ta Jainkoari erremedioa eskatzean egin bear da. Ta begira egitea orduan (eguardean egin ez badezu) penitentzia hura, zeña daukazun ipiñirik goizeko hitz eman artan, utsegiten dezun bakoitzerako, laugarren bide onetako pausoa esan zan bezela.

Geiago diote (b) San Krisostomok, ta besteak: ikusi bear dezula, aurrera, edo atzera zabiltzan, aste bata bestearekin, ta egun bata bestearekin begiratuaz: ta gauza ain erraza dala animaren kontu au, Santua aurretzen da esatera: *Baldin ill* (c) *oso batean au egiten badegu, geratuko giñake birtutearen estadu perfektoan*. Ta Santu, ta Maisu geienan esana da, kontu au bakarrik ondo gordetzen bada, bera asko dala, bat Santu urte beteren barrenean egiteko.

Ama Birjiña guziz Santaren Errosarioa egungo egunean Kristaben artean geiago artutzat iduki bear degu, berai arrezotzea baño. Bearra kanpora bazoaz, edo bidez, denborarik onena da, abiatzea erregu orrekin zure bidea; baño errezatzea alkarrekin Eleizan, edo etxean zure jendeekin zerorrek belauniko, ta mediatuaz Misterio bakoitzean, ainbeste balio du, non ta dio Santo Thomasek, San Anbrosiorekin: (d) *Asko txikitxo andi egiten dira alkarrekin batutzen diranean erregutza, ta ezin dateke askoren erreguak, ez Jainkoagandik iritxitzea al ditekeana*.





Milla ta bost eun, ta berrogei ta bederatzigarren urtean (e) Bolonia-ko Errian zeuden Errosarioa errezatzen alkarrekin, oi zuten bezela, Santo Domingoren Ordenako Relijiosa batzuek: ta oietatik batek bitartean ikusi zuen, nola esanten zituzten Abe Maria guztietan, irteten ziran aien aotik beste ainbeste errosa guziz ederrak, ta usai gozodunak, ta nola Zeruetako Erregiña bera ari zan biltzen, onetan aditzera emateko, zenbat atsegin artzen zuen ala erregu onez, nola alkarrekin batean erregutzeaz.

(a) *Senec. l. 3. de ira. cap. 16.* (b) *S. Chrisost. hom. 11. in Genes.* (c) *Hom. in Ps. 4.* (d) *S. Thom. 2. 2. q. 83. art. 7. cum putat. S. Ambr.* (e) *Fr. Andrés Rover. in Ani. Alani oper pag. mih. 408.*

## BEDERATZIGARREN PAUSOA

### IRAKURTZEA LIBRU ESPIRITUAL BATEAN

- G. Zer beste janari izango da animenzat guziz ona?
- E. Irakurtzea, edo irakurrerazotzea egunoro Libru onen batean.
- G. Serbi dezake etxekoentzat Libru onelako batek?
- E. Bai, ta izango da Maisu, ta Predikadore santu betiko bat.
- G. Ta beste libru ipuien, ta komediatako ariñ oriek?
- E. Oriek dirade animen izurri, eta eden gaiztoak.
- G. Zein da zerura bear dutenen, lenbiziko señailea?
- E. Enzutea, edo irakurtzea frutuarekin Doktrina, ta Jainkoaren hitza.
- G. Ta enzun nai ez dutenak zer señaile dute?
- E. Galdu, edo kondenatu bearren señailea, Jesu Kristok berak dienez.

nez.

- G. Asko ote da buruz artzea Doktrina ori?
- E. Ez da asko.
- G. Bada zer geiago bear da?
- E. Aditzea modu onean.
- G. Ta aditzen ez dutenak edolarik sustanzia, pekatu andia egiten dute orretan?
- E. Baldin ez badute galdetzen, edo ez badatoz enzutera, edo beste alegiñaz ikastera bai.
- G. Ta nork bear du obeto jakin Doktrina?
- E. Gurasoak, Eleizako buruak, Nagusiak, ta besteai erakutsi bear dienak.
- G. Ta pekatuko estaduan egongo dira, baldin edo berak, edo bestez etxekoai erakusteko alegiña ez badute egiten?
- E. Bai, ta pekatu guziz andian.
- G. Zer esatera iragotzen da Jainkoa guraso, ta nagusi oiek gatik?
- E. Ukatu dutela Fedea, ta Jentilak baño gaiztoago dirala.
- G. Zer egin dezakee egun oietan, gaitz orren anditik alde egiteko?
- E. Etortzea bere Etxekoakin Doktrinara, ta Etxean berriro iragotzea.

## ONDORENGOA

Egungo egunean bizi balira, ta baletoz zure Erri onetara San Ignazio Loiolako bat, San Franzisko Sales, edo Fr. Luis Granada, galdetuko zenduke bereala, zer zioten? edo zer erakusten zuten? Ta mesede anditzat





idukiko zenduke aiekin puska bat hitz egitea, edo aien hitz onen batzuek aditzea. Ideki itzatzu, bada, Santu oien Libruak, esaten dizu San Krisostomok, (a) ta orietan idoroko dezu, ta askoz obeto mesede ori: Zergatik beren hitzetan ezin esango lizukee ez bada horduan bertan gogoratuko litzaiketena, baña Libruetan esaten dizute Jainkoaren argi askorekin esan lezaketena. *Ez da ondasunik*, (dio Jainkoak) (b) *ta ez gauza zerikusi duenik adiskide egazko batekin*. Ta ez da adiskiderik, esan diteke, Libru batekin zer ikusi duenik. Zeren adeskide, ta konsejatzalle gerekin ekarri dezakeguna izateaz gañera, ta guzaz aspertu, edo gu saltzeko perillik beñ ere ez duena; ez digu iñoiz ere hitz egiten, ta ez laguntzen, guk nai degunean baizen. Beti esaten digu egia garbiro, ta argiro, ezeri barkatu gabe. Zer nagitasun, edo ajolagabetasun andiagorik, bada, gurea baño, onen erraz iduki dezagukeala Jainkoak eman digun ondasunik andiena ez dezagula nai gozatu, ta ez idiki ere, asko bider!

Baldin galdetzen badezu, zer Libru irakurri ditzakezun? Eranzungo dizu Aita espiritual jakinsun batek. Baña geienean zurekin ekartzeko, *Aita San Ignazioren Exerzizioak*, *Kristabaren pensamentuak*, *Maximak*, *Kempis*, ta beste esango diranak. Etxerako andiagotzat: *Aita Fr. Luis Granada gja pekatariena*, ta *beste Maisu [...] onen Libruak: Mundu onekin bestearen arteko Diferenzia Aita Eusebio Nieremberg Beneragarriarena: Bizitza deboziozkoa San Franzisko Salesena: Aita Alonso Rodriguezen Libruak*. Zer neke izango dezu, bada, artzean egunoro hordu erdi bat irakurtzeko, ta hitzketan egoteko onelako Gizon zerukoakin? Pauso onetan sartzen dira animaren on, irabazi, ta sari, Jainkoaren hitza aditzean Santuak ipintzen dituzten guztiak, ta Zerurako señalatuak izateak: bada, baldin seña bada enzutea, ez da gutxiago, Libru oietan irakurtzea, ta are geiago, zeren argiro, ta garbiago ikasten dan oraingo Sermoi askotan baño. Baña irakurtze, ta enzuteak izan bear du Jainkoaren hitza aditzea bezela, esan nai det, geldika, debozioz, ta frutuarekin. Ez badekizu zuk irakurtzen, ta Etxean iñor dakienik badezu, orrek gustienzat irakurri dezala, besteak ixillik bearrean dauden artean.

Ta emen Jainkoak eskuetara ematen dizu beste ondasun andi bat, ta bidea idikitzen zure zor bati eranzuteko. Zeren, Doktrina erakustez gañera, dezu zor andi bat (bearbada guziz aztua) zeña da ondo zure mendekoak azitzea Jainkoaren bildur Santuan, ta orretako alegiñak egitea. Bada zer bide errazagorik, ta obeagorik zor orri eranzuteko, onelako libru batean, Predikadore santu, jakinsu, ta egiazko bat ipiñtzea baño, zeñak gau oro, edo geienetan esan, ta erakutsi diezaten edolarik neguan, edo jaietan? Ta nai badezu enzun dezaten atsegin andiagorekin, aldizka ira-

kurri erazo zaiezu lengo libruakin, *Pasio Santuaren historia, edo Exemploen, edo Santuen Bizitzak, Ribadeneyraren libruetan*. Ta ken ber dituzu, ta etxetik bota edena, ta puzoia bezela, beste libru munduko galgarriak, ta ez Jainkoarekin batean iduki deabrua. Ez dakit aurkituko dezun egiteko errazagorik, ez Kristabarenzat obeagorik, ta ez atsegin, ta irabazi andiagorik, zurekiñ zure etxekoentzat libru onetan irakurtzean baño. Bada esatearekin, ta esanzat emanarekin erakusten dute uste gabe Doktrina: ta irartzarten dute burua, erbesten jakingabetasunak, lotutzen gure gaitz naiak, bere anzera edertzen bihotzak, ta ainbeste frutu animetan egiten dute, zeñean Aita San Ignaziok, ta San Juan de Diosek, zerutik argiturik, irabazi zituzten asko anima bide onetatik, libru oiek erosi, ta berekin erri batetik bestera eramanaz, saltzeko txit merke. Ta San Isidorok (c) dio *animako irabazi gutzia irakurtze, ta meditaziotik datorrigula*.

Jakinat uzten det, San Agustinek, San Fuljenziok, gure Aita San Ignaziok, te beste askok zor izan ziotela beren Jainkoagana biurtzea, ta Santu ikatea, onelako libruai. Gatozen gure denboretara, zeñetan eztzien gutxiago zor arako Jakobo bigarren, Ingalaterrako, Eskozia, ta Irlandako Errege, Kristau guztien espillu, guziz Katholiko sendoak. (d) Irakurtzen zuen Agintari andi onek debozioz egunoro libru esan ditugunetan, ta betez ere gauza denboralen, ta betikoen Diferenzian, ta ain agitz josi zitzaion bihotzean, non da askotan esan oi zuen: iñori ere geiago zor etziola lurrean, Orangeko Prinzipeari baño, bada hiru Erreino kendu ziozkanagatik, ipiñi zuela Zeruko bat guztiak baño geiago balio zuena irabazteko bidean: ta orregatik erregutzen zion Jainkoari egunoro beragatik berezkiro. Ta kontu ematenziola bein Jaun berari Franzian jarraitzen zion batek bere naigabe batena, zeñekin zegoen lorik ezin egin zuela. *Nik emango dizut* (esan zion Erregeak) *erremedio bat guziz indarsua, ta ona*. Ekarri erazo zuen Libru Diferenziarena, ta esan zion: *Ar ezazu, Milord, irakurri ezazu Libru au, ta nere kontu lo egingo dezula*. Aditzera eman zion, ezerk ere ez digula atsedean, ta pake geiago emango gure animan, lurreko gauzak utzi, ta Zeruko libruak irakurtzeak baño.

(a) *S. Chrisostom. hom. 30. in Epist. ad Rom. in Moral.* (b) *Eccle. 6. 15.* (c) *S. Isidor. l. 3. sentent. c. 8.* (d) *P. Franc. Bretonneau in l' Abrege de la vie de Jacques. 2. pag. milti 245. & 128.*



## AMARGARREN PAUSOA

### ERREGU BIHOTZETOKA, EDO ORAZIO MENTALA, ETA KONSIDERAZIOA

- G. Zerk erabili dezake ondo anima egun guztian?
- E. Denbora puska bat orazio mentalari, edo bihotzeko meditazioari emanak.
- G. Nola egin dezakete erregu ori, ez dakitenak, abere batek baño geiago?
- E. Ori bera Jainkoari, bere aurrean dagoela, esanaz: *Jauna, ementxe dago Urlia; ementxe dago abere au.*
- G. Ta baldin bihotza joaten bazaie beste milla gauzatara?
- E. Biurtu beren erregu artara beste ainbeste bider.
- G. Ta baldin ezer ez bazaie gogoratzen, edo ezerk ez baditu biguntzen?
- E. Irakurri geldika liburu batean, geratuaz mogitzen dituenan.
- G. Ta baldin ez badakite, ez irakurtzen, ez erregutzen, ez besterik egiten, zurgai, edo arri batek baño geiago?
- E. Orregatik beragatik egon sendo, ta esan: *Jauna, nik ez dakit ezer, baña emen egongo naiz, zure ontasunaren begira, zur bat bezela.*
- G. Ta naiko du Jainkoak erregu ori, orren gauza doakabea?
- E. Geiago askoz, Santuen airean ebilltzeak baño.
- G. Baña eztute askok lekurik izango, erregu ori egiteko?
- E. Izango dute edolarik puska bat Errosariokoan, edo Meza enzutean.

### ONDORENGOA

Eskatzen dizut, arren, *orazio mental*, edo *erregu bihotzeko* onen izenak ikaratu, ta ez dezazula liburu au itxi, uste dezulako, erregu ori dala Santuen gauza, edo zurekin hitz egiten ez duena: bada Ebanjelioak Kristau guztiakin hitz egiten du. Ez siñistu munduko ez jakiñai, Santa Teresa erregu, ta meditazio onen erakasle andiari baño, geiago, (a) zeñak dion: *Au dala asiera, ekartzeko bertute guztiak, ta gauza bat, zeña asitzean, dijoakigun bizitza Kristau guztioi: ta iñork ere, dan galduena izan arren ere, utzi bear ez lukeala, baldin Jainkoak orretara deitzen badio.* Ta gerioxeago dio, *egunoro bere pekatuak meditatzen egon bear lukeala batek, baldin Kristaba bada, izenez baño geiago.* Ta zeran gaiztoena izan arren ere, egiten, edo egin dezu askotan, nola ez

dakizula, erregu au. Esazu; eztzera egon zure barrenean begiratzen batzuetan, Jesu Kristoren anz, edo imajiñaren bat ekustean: *Jaun onek eraman zuen nere kulpak gatik heriotza?* Edo iñor beingoan uste gabe hill danean, bihotzean eztzaitzu iragotzen: *Onelako heriotza batek artu ninzakean ni?* Ta orrelako argi oriekin ezta sarzen zure bihotzean bildur, ta lotsaren bat, nola bizi zeran? Bada egia orrelakoren bat zure buruan iragotzea, ta orrekin zure borondatea beratzea Jainkoaganonz, orixe da, ta ez besterik, erregu, edo orazio mentala, zeña orain esaten dizudan. *Ez dezute zer uste (dio (b) Santa Teresak) beste algarabiarik dala, ta ez dezute zer orazioaren izenaz ikaratu.*

Ez dago besterik, ez bada zure buruan iragotze ori, ta borondatea mogitze ori, izan bada oraindaraño, oartu gabe, lasterka, ta frutu gabe, emendik aurrera izan dedilla geldiro, oartuta egonaz, ta orrekin izango da ain irabazi andiarekin, zeñean ez dezu beste bidetatik idukiko seguruago zure grazia, ta salbazioa. Ala esaten dizu (c) Santak berak, deabruaren kontra dionean: *Badaki gaiztoenak, anima orazioan sendo egoten dana, galdua duela.* Ta gure onerako orrenbeste badijoakigu, onakin, edo gaiztoakin ebiltzean, zer gauza on, eta zuzen izan diteke anima batean, zeñak ainbeste gaitzen artean, nola dan munduan, ozta du tratirik, edo egiten hitzik Jainkoarekin, zeña dan on guztien iturria? Nola naiko dio, ta ez eza-gutuko du, baldin ozta bihotzez hitz egiten badio; ez bada aoz bakarrik. Edozein ere Kristau, zeñarekin ez dezun artu emanik, ekusi arren, ta izentatu arren askotan, egiaz esaten dezu, ez dakutsula ez bada begiz, edo izenez. Bada orrelaxe da Jainkoarekiko askoren ezagüera, zeñak ez dute arren zer ikusirik, ez bada hitzez; ezagüera bat izenezkoa, azaletik, illuna, ta leorra, ez aldetikakoa, ta obra onen emallea.

Erregu hitzezkoa, bihotzezkoak laguntzen ez diola, da gorpuz bat, anima gabe: ta esatean erregu onen bearra degula, aditzen da geienaz bihotzeko erregua, zein aditzera ematen dute Santuak, diotenean, dala: *Animaren oña, munduaren Bizigarria, Kristabaren osasuna, Justiziaren neurria, Zeruko atea, gauza on guztien iturria, Kristabaren bizitzaren zimendu, ta sustraia, birtute guztien gaia, ta animaren zañak.* Lan andi onen egitekoa da gauza ain erraza, zeñean guztienzat esan diteke, dala denbora, lekua, ta egiteko modua. Deabruak, nola onen ain bildur dan, ifiniko dizkitzu milla ezinegin, ta zure egiteko andiak; baña orregatik beragatik, Jainkoarekin bear dituzu ikusi; ta andiangoak ziran Dabiden egitekoak; Karlos bostgarren, ta Jakobo bigarren Errege andiena, zeñak orregatik zuten egunoro oraziorako denbora. Baldin ez bada bazter bat etxean, iduki dezakezu zure bihotzean, edo kanpoan, edo Eleizan, zeña da lekurik onena, edo Meza baño



lenago, edo enzun ezkerro. Baldin hordu bete ezin badezu, ar dezakezu erdia, goizago puska bat jaikita; edo besterik ezin bada, Meza enzute artean, edo Errosario, edo Aldareak, edo Kurutzeak erreztatzean: edo hordu erdi bat, ostigaletan, ta Jai egun bakoitzean. Nola erregu au egin bear dan esateko, zurekin bat egingo naiz, zuk artzeko ondoen deritzazun bideren bat, eta batetik bestera irago zaitzekeala.

Lenengo. Jarri zaitetz fede bizi batekin Jainkoaren aurrean eskaiozu argi eman, ta lagundu dizazula. Gero ekartzu gogora gauza onen bat, edo Jaunaren Bizitza, edo Pasioko pausoren bat (zeña bear dezu eraman prest beti gogoan) edo azoteena, edo Koroa nola sartu zioten buruan. Galde zaiozu zure bihotzari: *Nor da Jaun, pena au iragotzen dagoena? Da nere Jainkoa Zeruaren, ta lurraren jabea. Norgatik dago onela? Nigatik, ni ezer ez, ta billau bat naizala, zeren ainbeste ofenditzen dedan. Ai! ta zein gaitzki eranzuten diodan! Lotsa zaitz, Anima nerea, damu zaitz, ta arritu, ikusirik aren ontasuna, ta zure gaizotasuna.* Edo utzizaiozu onean zure bihotzari dijoala ondoen dijoakion bezala. Ta orra, zer dan, ta zertan dagoen meditatzeko biderik jakiñena: ta deritzat, irakurtzen ez dakiten, txit askok gordetzen dutela, bere animen erabazi andiarekin. Baña baldin irakurtzen badakizu, eraman bear dituzu, lenazdanik, ikusi ta konsiderazioren batzuek, edo gure Aita San Ignazioren Exerzioetan, Villacastin, edo orrelako Liburutxoren batean. Edo.

Bigarrena: eramazu zurekin Liburu oietatik bat, ta egizu, olloak edatean egiten duena: artzen du ur gutxi bat, ta bereala jasotzen du burua, gora begira, ta edaten du: artzen du berriz aora, ta berriz gora begira. Orobat egizu zuk Liburuan: irakurri puska bat bihotza mogitu artean, ta orduan jaso Jainkoaganonz irakurriaren gañean. Berriz gero irakurri beste puska bat, ta beste ainbeste, bihotzarekin egin. Edo. Hirugarrena: Jarri zaitz Jainkoaren aurrean, pobreak Eleiza atarietan dauden bezela, ta eska ezazu, ta deadar egin zure neke, ta bearrak Jainkoari esanaz; ta idukiko dezu orazio guziz ona. Edo. Laugarrena: Jarri zaitz arako ormetan Eleiza askotan belauniko dauden bultuak bezela, ta esaiozu Jainkoari: *Jauna, ona non dagoen abere au; ona non dagoen bulto au, nik ez dakit oraziorik egiten.* Ta orrekin bakarrik erregu egiten dezu txit ondo. Bostgarren bat ere bada, ta are errazagoa, urrengo pausoan idoroko dezuna.

Gauza bi artu itzatzu guztien gañean. Lenbizikoa: zure erreguia beti zure naiak ukatzera eraman dezazula, ta are geiago zure gaitz geiena agintzen dizuna kentzera, ta zure obligazioai eranzutera; zeren onetan utsegi-tea dan iduripen utsa. Bigarrena: ez dezazula iñoiz ere utzi, ta ez laburtu erregu au, ez dezulako zure ustez ezer egiten. Baldin Jainkoagan pensa-

tzen jarri ta milla bider gogoratzen bazaizkitzu etxeko, edo munduko gauzak, ta beste ainbeste bider biurtzen bazera Jainkoagana, iduki dezu erre-gu guztiz andi bat. Zurgai, edo arri bat bezela idorotzen bazera, oriek bezela zaude sendo laugarren erregu moduan: *Jauna emen dago arri au emen dago abere au.* Ta deabruak ez bazaitu atzeratzen (zeña da ark geiena nai duena) irten zera zurearekin, ta ain irabazi andian zure animarentzat, non ez zuk ezagutu arren, sinistu bear diozu Santa Teresari, bada dio: *Egoitea antxe (d) ezer atera bage, ez da denbora galdua, baizik irabazi andikoa, zeren bear egiten dan sari gabe.*

Bidean zijoala gure Aita San Ignazio (e) oñez bere lagunakin, ta beren gauzak bizkarrean, ikusi zituen gizon on batek: urrikaldu zan, ta ezin geiagoan eskatu zien, emateko ari beren tresnak, eramango ziztela; ta azkenik eman ziozkaten. Ostatura eldutzean, billatzen zuen Aita bakoitzak bere bazterra, idukitzeko orazioa. Horduan gizon onek ikusirik, zer egiten zuten, billatzen zuen ark ere bere bazterra, ta jartzen zan belauniko, aek bezela. Bidean zijoazela galdetu zioten bein batean: *adiskidea, zer egiten dezu bazter artan?* Erantzun zuen: *Nik egiten dedana da, esan: Jauna, oiek Santuak dira, ta ni oien astoa: nik nai nuke oiek egiten dutena egin; ta auxe nago an Jainkoari eskentzen.* Ta orra erregu onekin ainbeste irabazi zuen gizon onek, non eldu zan gizon espiritu txit andi, ta oraziokoa izateraño.

(a) *S. Theres. c 16. del Camino de la perfeccion.* (b) *Ibid. c 25.* (c) *C. 19. de su vida.* (d) *Epist. 8. ad Illustris. D. Alons. Velazquez.* (c) *P. Alons. Rodrig. t. 1. tr. 5. c 19.*



## AMAIKAGARREN PAUSOA

### BIHOTZEKO ERREGU BIZI LABURRAK, EDO JAKULATORIAK

G. Geratzen da beste erregu motarik, zeñean ez duen inork ezin egiñik?

E. Bai, eta da erregu bizi, edo orazio Jakulatoriena.

G. Zer dirateke erregu oriek?

E. Dira animaren suspirio batzuek bezala, edo Jainkoaganonzko nai bizi labor batzuek.

G. Noiz, eta nola oroituko gera, Jainkoari oriek bidaltzeaz?

E. Orduak ematean, zeren hordu ori gutxiago bizitzeko degun.

G. Ta zer esango diogu Jainkoari, ez bazagu ezer gogoratzen?

E. Erregurik laburren, Santuen, eta gozoena, zeña dan ABE

MARIA.

G. Ta zer bihotzeko nai, edo afekto, orrekin batean?

E. Bakoitzari bere bihotz soll garbiak esanerazotzen diona.

G. Erakasi zadazu bat edo beste fiñ onerako, eta birtuterako dana?

E.

*Alaba ezazu, Maria,*

*Jainkoa beti:*

*Jaun ori ofenditzen,*

*ez arren ni utzi.*

G. Orren frutu andia, ta Jainkoaren gloria dago egiteko, edo exerzio onetan?

E. Beronek, gure esaeran, egingo du gu glorian Bizitzea.

### ONDORENGOA

Eldu naiz ya zure begien aurrean ifintzera erregu mota bat errazena, zeñean ez dauka inork ere zer esan, ezin egingo duela, bere neke, edo bearrakgatik; au da obeto esateko, lurtean egitea zeruko dohatsuen bizitza, zeña dagoen, animak Jainkoaganonz igotzean egaka bezala, edozein bear egiten gaudela, eta derizte, *orazio Jakulatoriak*, esan nai det, dardo, edo amoriozko afekto batzuek, gure bihotzak Jainkoaganonz botatzen dituenak, nola diran oiek: *O nere Jaungoikoa, zeñ izan zitekean zu inoiz ere ofenditu gabe! O ta gauza guztien gañean beti onesten bazindut! Noiz elduko da denbora betiko onetsi, eta gozatuko zaitudana!* Onelako beste oneznai labor, eta beroak:

eta onenak dira, zure bihotzak berez ateratzen dituenak. Ainbesterañio dauka Jainkoak erakusia bere borondatea, guk egiteko arganonzko erregu oiek, non dirudien eperik ere eman nai ez digula puntu onetan, bada esaten digu: *Bear da, beti erregutu, eta ez inoiz ere aspertu. Erregu ezazute, beñ ere utzi gabe* Eta mandatu, esateko, ezin geiago alako, gure Jainkoaren au egiten degu nola ere bait, ordu guzietan bihotza erregu oiekin maiz jasoaz, San Krisostomok, eta beste Santuak erakusten dutenez.

Beti Jainkoa amatzen, eta alabatzen, utsik gabe, egotea, da berez Zeruko gauza, eta Santu, ta Aingeru guzien egitekorik goiena. Zer zori obeagorik, bada, aien gisa egitekorik andien au lurtean bihotzeko egaka oiekin egitea baño, eta Santuak Zeruan bezala, emen bean asi Zeruko auzo izatera? Ain goia da lan au, ta bestetik ain bearra, eze San Basiliok, San Agustinek, ta beste Santuak guztiz agindu ezkerok, San Krisostomok ausardiaz esaten du: *Ezin dateke (a) Ezin dateke (esan naidu, ozta dateke) utsegitea Jainkoaren legan Kristau beti Jainkoari erregutzen dionak, bear dan bezala.* Eta San Franzisko Salesek lan onen, eta Jainkoaren aurrean ibiltzearen gañean dio: *Onetan dago debozioaren egite andia: onek bete ditzake beste erregu guzien utsak; baña beronek ez du, bere utsa bete dezakean, ordañarik... Eta orregatik agintzen dizut, ar dezazula zure bihotz guziarekin, onetatik beñ ere alde egin gabe.* Orra nola Santuak agintzen duten. Onela artu, ta erraz egingo luke zure bihotzak, diran egiteko guziakin ere, baldin labe batetik, zeña bildur naiz berotu gabe dagoen, orren erraz su garrak jaiki al balitez, edo lurreko gauzetan Santu, ta sorturik dagoenak bear ezpalitu iratzargarriak bere Jainkoaz oroierazotzeko. Argatik San Buenaventurak, Kempisek, San Pedro Alcantarakoak, eta S. Franzisko Salesek, zekitenak bezala, esaten dizute, (b) aspirazio, eta deboziozko afekto oiek artu, ta biziro egin ditzazula, orduak ematean gañera zerbait aoz Jainkoari esaten diozula, zergatik lotan dagoenak esnatzeko hitz egin bear du, eta barrengo nai oiek bakarrik, edo ez dute sustrairik, edo gutxi irauten dute bihotz isuririk kanporon zabilzanetan.

Nai badezu, bada, paregabeko frutu betikoarekin egin lan txit asko balio duen au, egizu Santu oien esana, berezkiro Kempisena, ta besteena, eta orduak ematean esazu, ABE MARIA, eta orren ondoren bihotzetik:

*Alaba ezazu, Maria, beti*

*Jainkoa gure ordean:*

*Ofendi ez daigun, artu gaitzazu*

*betiko zure mendean.*

Edo beste au:

*Alabatzen det bihotz guzitik*



*Jesusen Bihotz argia:*  
*Onest dezadan ordu onetan*  
*Lagun nazazu, MARIA.*

Eta goizetik Jaunari eman diozuen hitza ez ofenditzeko, josi dezazun urrezko ilzetxo batez bezala, esaiozu bihotzez, edo aoz: *Jauna, esana esanik*. Ikusten dezu, niri geiago kostatzen zadala esatea, zuri egitea baño. Eztzaio igarotzen Jainkoari denborarik, guzaz oroitu, ta gure onaz begiratu gabekorik: eta ez degu guk, edolarik, ordutik ordura oroitu bear gure Jaunaz? Baldin errespetoko persona batekin zaudela, baña hitzik egin gabe hordu erdi batean ere, lotsatzen bazera, nola dezu arpegirik egoteko zure Jainkoarekin bakarrik, eta ordu baten, eta bian hitzik egin gabe, ez bihotzez, ez aoz? Orrenbeste kostatzen zaitzu Abe Maria bat?

Erregu onetan geiena Jainkoaren Amari eskatzen dioguna, edo gauza bakarra, da: *Erregu dezala giatik orain, eta gure heriotzako orduan*. Bada zer ordaña eskatzen dizu berak, baldin aren betiko anparo, oraingo, eta heriotzako hordu estuko aren ordean, Abe Maria bakar bat orduoro eskatzen badizu? Erakasiko dizkizute besteak debozizko erregu, ta hitz asko, eta onak, orduak ematen dueneko; baña *Aita gureaz* kanpoan, iñork ere ezin erakasiko dizu erregu ain Zeruko, labur, Santu, ta ain gozorik, nola dan Abe Maria. Ala gure denborako Maisu andien, eta obeen batekin, esaten dizut, orduoro Abe Maria esatearen gañean: *Ez nola nai artu, eta iduki dezazula oitura txit Santu au, ez bada gorde dezazula, pekatuaren bean zor bazendu bezala*. (c) Baña ez egin orrelako juramentu, edo obligaziorik. Debozio au Italian, Alemanian, Españan, eta Portugalen banatu ezkeru, milla ta sei eun, eta amalau garren urtean gertatu zan mirari au: Coimbrako (d) gizon bat burutik galdu, eta suburnia artu, eta joan zan hiltzera bere etsai bat: onek aditu zuen ordua, bestea tiratzera zijoan denboran, eta geratu zan, an oizan bezala, erreztazeko Abe Maria: ta orra non bitarte orretan balak irago ziran pauso batez aurrerago leku artan, zeñean hillik geratuko zan, Abe Mariak iduki ez balu.

Baña Jainkoari zenbat atsekin eman diozakean kristau axola gabeko, ta beste ezer ez dakien jende gaxoak Abe Maria onekin, beste erregurik ez badaki ere, obeto erakusten du exenplo onek. Zisterko Ordenan (e) sartu zan Soldadu edadeko bat, eta ain lotua, non ezin iñoiz ere ikasi izan zuen beste oraziorik, Abe Maria baizik; baña beste aldetik ain debotoa, eze ori esaten zegoen beti, gozatzen zala orrekin jatean, bearrean, eta guttian. Debozio onekin hil zan ezkeru, ta andik geroago ikusi zan, nola aren obitik jaio zan zurgai bat osto berri, an artean ikusi eztiranakin, zeñetan zeuden urrezko letrak hitz oiek: *Abe Maria, graziaz bete*. Miretsirik

guziak prodijio onez, idiki zuten obia ango Obispoa begira zegoela, ta arkitu zuten, zurgai ori, ta orren sustraia jaiotzen zala Monje arren aotik, zeñek ainbeste bider, ta ain gozotoro esan oi zuen Abe Maria.

(a) *S. Basil. hom. in Martyr. Jullit. sub med. S. Aug. Epist. 121. ad Probam. c. 10. S. Chri-sost. hom. 79. ad Pop. init. S. Fran. Sal. par 2. introd. c. 13.* (b) *S. Bonav. t. 1 Opusc. de exerc. spir. init. S. Fran. Sal. tr. 3. opusc. Kemp. de Exerc. spir. fusior. c. 3. S. Petr. Alcant. p. 2. de la Devoc. c. 2.* (c) *Drexel. in Trisonog. l. 2. c. 4. 5. 2.* (d) *P. Ant. Balinghen. l. 2. de orat. Jacul. c. 6.* (e) *Dauraul. Flor. Exempl. t. 1. c. 2. tit. 35.*





## AMABIGARREN PAUSOA

### JAINKOAREN BORONDATEAREKIN

#### ARABA, EDO KONFORMIDADEA

G. Berezirik onela eguna, astea, eta illa, ez degu birtuteen lan, edo exerzizioan beti ari bear?

E. Bai, Aita; baña ez diguzu oraindik ezer esan orren gañean.

G. Esadazu, bada, zuk bat, guztiak berekin dakartziena?

E. Ori da Jainkoaren borondatearekin araba.

G. Zertan birtute ori iduki bear da?

E. Gauza guzietan berdin nola atsegiñean, ala atsegabean.

G. Zer esan diozakegu Jainkoari orrelako orduetan?

E. *Jauna, zure borondatea egin bedi, denboraz, sekulan, ta beti.*

G. Birtute au da orren beti bear dana?

E. Bai, Aita, zeren ez dan Kristaurik bear, edo neke gabarik.

G. Noraño igoerazo dezake gure anima birtute onek?

E. Kristabaren bizitzatik Jainkozko bizitza bateraño.

### ONDORENGOA

Hitz bakar oietan, *Jainkoaren borondateaz araba, edo konformidadea*, eskeñzen dizut birtute guztien izate bat, zerurako biderik laburrena, eta dohatsu lurrean nolaerebait izatea bera. Uste bazenduen oraindaraño, birtutea zegoela errezo luzeetan, Meza asko ikustean, eta penitentzia andiak egitean, eta baldin orregatik birtuteari jarraitzeko bihotzik iduki ez badezu; txit utsegiñik bizi izan zera. Erregu, ta mortifikazio oriek dira birtuterako bitarteko, ta bide Santu batzuek, zeñak ez dituzu artu, ta oituran iduki bear, neurri gabe, eta Konfessore zinzo bati esan gabe. Bestela azaletik artu, ta birtute ez dira. Eta baldin galdetzen badezu, zertan dagoen birtutea? Teologoak eranzuten dizute (a) birtutea, eta birtute guzien anima, edo izatea dagoela, zure borondatea Jainkoarenaz arabatzean, edo konformatzean, garaituaz edo ukatuaz zure borondatea. Nai badezu, bada, serbitu ziñez Jainkoa, ez dezu zer zure ustea ifiñi martirioetan, eremuetan, ta ez beste ikasbide askotan. Zure etxe barrunbean, eta egunoroko zure eskuarteko gauza orietan, ifiñi dizu Jainkoak birtute txit zeruko bat; eta orretara igotzeko, ez dezu bear besterik, arako *Aita gureko* hitzak baizik, betiro dauskatzula aoan, ta are geiago bihotzean: *Egin bedi zure borondatea, nola zeruan, ala lurrean.*

Irteten zatzu gazki egiteko, edo lanen bat zeñean neke asko izan dezun, eta zeña ondo irtetea nai zukean zure borondate, edo gogoak? Esaiozu bada ziñez Jainkoari: *Jauna, zure borondatea egin bedi orain, ta beti.* eta orretantxe dago birtutea. Zure mirabe, seme, alaba, emaste, edo senarraren bizitasuna, orren esan, edo utsegiteak, dira zuretzat, diozunez, betiko naigabea, eta Jainkoak naidu zuk ori eramatea? Bada esaiozu Jaunari bihotz guztik. *Egin bedi zure borondatea orain, eta beti.* eta zure burua Jainkoagatik garaitze orretan dago birtutea. Egiten dizu besteak gaitzen bat, edo kentzen zure izen on, edo kreditua, eta erremedia lezakeala ori Jainkoak, egiten ez du? Bada esaiozu bihotz osotik: *Jauna zure borondatea egin bedi orain, ta beti.* ta ortxe dago birtutea. Nai du Jainkoak orregatik beragatik erakutsi diozazula oneguna, eta aurpegi argia, eta egin diozazula al badezu, berezkirozko onen bat. Erabaki zaitte, bada, egitera, Jainkoak ala nai duelako, eta agintzen dizulako, eta orretan dago Jainkoa galanki serbitzea. Fin onetara zuzendu bear dituzu zure erregu, barau, eta limosnak, zere burua garaitzera, eta neurritzera Jainkoaren borondatearekin batez ere etxeko, eta egunoroko gauzetan, zeñak San Franz. Salesek dionez, *dira bide (b) eder bat animako ondasun asko batutzeko, ondo artzen dirala.* Eta ez dudatu, askotan onelako garaitze batekin txikia dirudiela, atsegin geiago Jainkoari, ta erabazi andiago animari emango diozula, eun baraurekin baño.

Zer du zer ikusi, Jainkoak zuri eraman dizun, eta egunoro sufritzen dizunak zuk besteari sufri al diezakezunarekin. Ezin zere burua zuzendu dezu, ona izateko, ta besteak nai dituzu zuzendu? Neke orretan, eta andia-goetan ere agertuko balitzazu Jesu Kristo bera, ta esango balizu: nere borondatea da, zuk neke ori iragotzea, nik bialtzen dizut: nork ez daki, zuk, gaiztoa izan arren ere, esango ziniokeala: *Jauna, ori da asko, nai det nik irago, egin bedi zure borondatea.* Bada zure Salbadoreak esango lizukeana bera esaten dizu Fedeak ain seguru: (c) *Onak, eta gaitza, bizitza, ta heriotza, bear-tasuna, ta ondasunak Jainkoagandi datozkigu.* Baña zure itsutasun, eta kalte guzia dago, zure begiak ifintzean bakarrik, naigabea ematen dizun, Kristau artan, eta ez Jainkoaren esku gorde, ta amoriozko zure neke ori bide orretatik bialtzen dizunean.

Beartasuna, gajotasuna, deskreditua, ta beste nekeak dira ogi, edo janaria, zeñekin Jainkoak bere humerik maiteenak azitzen dituen: dira zeruko biderik zuzenena; bada au bakarrik artu zuen bere seme maiteen, ta bakarrarenzat. Egunoro deitzen diezu Jainkoaren erregaloak, besteak atsegintzean; baña zugana datozenean, ezin ori siñistu dezu, edo begiratzten diezu, siñisten ez bazendu bezala, eta zeru asko erabazi bearrean, ta



naigabeak ariñagoak egin ordean, hiru hitz bakar oiek: *Egin bedi zure borondatea*; zure hitz, eta deadar betikoak dira, Jainkoak atera zatzala orientatik, berezkiro lurreko gauzetan diranean: eta uste dezu eztzaituela aditzen Jainkoak geiena aditzen zaituenean; zeren zuk eskatzen diozun osasuna, lekua, edo erabazi ori ukatzea dan, ikusten duelako, zure animaren kalterako izango lirakeala, urrengo exenploak dion bezala.

Bost eun, eta ogei, ta zorzigarren urteronz bizi zan (d) Teбайдan gizon nekazari argin bat, Eulojio zeritzana, pobrea, baña birtutez ain aberatsa, eze, kendurik bere aoko bokadua, egiten zuen limosna asko, eta erromesai ematen zien ostatua. Besteen artean iduki zuen bein batean Monje Santu Daniel zeritzan bat: ezaguturik onek nekazari ongille orren birtute andiak, bere Monasteriora biurtu zanean, eskatu zion Jainkoari erregu, eta barau askorekin, arren aberastu, ta ondasunez bete zezala Eulojio, izango zalako aren iritzian, Santuen, eta emalleen ispillu bat. Eranzun zion Jainkoak, eztzitzaiola konbeni Eulojiori, estadu artatik irteeta. Orregatik ere eskatu zion Danielek berriro, ta ain biziro, eze ifiñi izan zion bere anima buruzagi, edo fiadoretzat, eta orra non Jainkoak egin zuen Eulojiok bein atxurrean ari zala arkitzea lurpean gordairu, edo tesoro andi bat, zeñekin joan zan Konstantinoplako Kortera.

Artu zuen an Soldadutzako bide edo bizimodu peligrizkoa, eta denbora gutxiren buruan, bere diru, ta adiskideak laguntzen ziotela, igo zan Enperadore Justino zarraren Guardietako Agintari izateraño, baña len zanetik ain trukatu bere oituretan, bere ahal, edo poderio, ta anditasunarekin, non limosna len bezela egin bearrean, eman zion jokoari, ta errege ordean ibillera txarrai: orduan Jainkoak guzia erakusi zion Daniel Santuari bisio txit izugarri batean, zeñean Eulojioren animaren kontu eskatzen zion buruzagiari bezela: joan zan aren billa Kortera; baña illabete osoan eztzuen hitz egiteko lekurik izan. Geroenean beragana sarturik, asi zitzaion hitz egiten bere animako egia, edo desengañoakin. Baña ain gaizki artu zuen Eulojiok, non deadarrez asi zan Soldaduai, zeren zoro ari sartzan utzi zioten, eta atera zuten agaka, ta heriturik. Eztzan orregatik aztu Daniel bere Eulojio gajoaz, aitzitik asi zan Jainkoari erregutzen benazago, ta aren erremedio bakarra bezala eskatzen, arren erakarri zezala bere lengo bizimodu nekezko humill artara. Obeto aditu zion Jainkoak erregu au; zeren hill ezkerro Justino, sartu zanean agintzera Justiniano, jarraitu zion Eulojiok beste Hipazio zeritzan gaizto, eta gaizki Enperadore izan nai zuen bati. Preso artu zuten, eta Eulojio izuli zan bizirik. Orrekin onen ondasunak Justinianoarentzat geraturik, eta zerekin bizi eztzuela ikusirik, biurtu zan bere zizel, eta malluarekin bearrera, eta ondo senza-

men, edo eskarmientoarekin bere kulpen penitentzia egitera. Onela zebillera, ikusi zuen berriz Daniel; baña humillago, eta beraago Kortean zegoenean baño: Erregutu zion Monje Santuari, eska ziozala Jainkoari, ez ondasunak emateko, ez bada zerbaít arindu ziozala beartasun andi ura, eta bere bizi guztian ezagüera orrekin biziko zala. Ez orixe, eranzun zion Danielek, ez geiago: ez diot eskatuko Jainkoari neke orretatik libra zaitzala, zeren ori, nekezkoa bada ere, bearra dan zure animarenzat. Eta onela korrejiturik utzi zuen, eta gu erakusirik exenplo onetan.

(a) *Cum D. Thom. 1. 2. q. 19. art. 9.* (b) *Sales p. 3. cap. 35.* (c) *Ecdi. 11. 14.* (d) *Causin. tom. 2. Corte Santa tr. 2. max. 5. exempl. 5.*





## OARRA IRAKURTZEAREN GAÑEAN

- G. Nola batek irakurri bear ditu liburu au, eta besteak probetxuz?  
 E. Gorputzak janaria txikitu, eta onerako artzen duen bezala.  
 G. Zer esan naizu orrekin?  
 E. Irakurri bear dala geldika, ez guzia batean, ezta or, emen ikusi, edo pikatuaz, edo goragaleakin bezala.  
 G. Nork irakurtzen du guzia batean irintziaz?  
 E. Asko, edo lasterka irakurtzen dutenak, ezin txikituko, edo (a) onerako artuko duten bezala.  
 G. Nork irakurtzen du or, ta emen, edo batetik bestera ibilliaz?  
 E. Bere errenkan irakurtzen ez dutenak, ez bada batean, eta bestean, janari, edo plater askotatik jaten bezala.  
 G. Nork irakurtzen du goragaleakin?  
 E. Humiltasun gabe, edo baleki bezala, edo jakin nai utsez irakurtzen duenak.  
 G. Nolako oar, edo atenzioaz egon bear degu enzuten Jainkoa liburu, edo Sermoietan.  
 E. Ain ondo begiraturik, nola exenplo paregabe onek erakusten duen.  
 Zegoela bein aditzen Eskritura Santua irakurtzean Hermitaño santu Eusebio zeritzan bat, jaso zituen begiak, jakin nai, edo kuriosidadez, ikustera kanpo batean bearrean ari ziran atxurlari batzuek, baña kontuan erori zanean artu zuen ain damu andia bere dibersio eta kulpa arin orrez, non, egiteko penitentzia, ifiñi zien bere begiai lege bat, eztzutela geiagoren geiago begiratu bear, ez kanpo artara, ez zerura, ta ango izarretara. Onetako lotu zuen gerrian uztai burnizko bat, eta lepoan beste argolla burniz betarikako astun, eta pisu ain andi bat, eze ibillierazotzen zuen beti makurturik lurreronz begira. Eta onelaxe egon zan berrogei urtean, edo hiltzan arteraño, bere leiza, edo zeldatik beñ ere irten gabe, ez bazan Oratoriora arrabateko bide estu batetik. Galdetzen zioten zergatik orren gogorki begiak jaso gabe zeukatzen? Erantzuten zuen, zeren onenbeste arreta gauza txikietan nik artu, ta deabruak gudarik andietan egingo ez didan. Orra, ikasi ezazu zuk irakurlea, nola iges egin bear dezun, eta zure kulpa pisu, edo andien penitentzia egin, onela Santuak iges egin, eta kastigatzen dituztenean, diran txikienak.

*Thoderet. in Histor. SS. PP. sect. seu cap. 4.*

## KRISTABAREN IKASBIDE,

**edo Doktrina laboratxoa,  
 zeñean erakusten diran  
 Kristabak jakin bear dituen gauzak**

*Ikasi ezker, zure gurasoak erakatsirik,  
 Aita gurea, Abe Maria, siñistubearra, edo Kredoa,  
 ta beste onelako erreku, eta gauzak, esadazu.*

- GALDEA.** Zer esan nai du Kristabak?  
**ERANZUERA.** Jesu Kristoren gizona.  
 G. Zer da Jesu Kristorena izatea?  
 E. Edukitzea Jesu Kristoren sinistea, edo fede bateatu zanean artu zuena, ta bera serbitzeko eskeñirik egotea.  
 G. Zein da Kristabaren señailea?  
 E. Gurutze Santua, zeren dan Kristo gurutzean josiaren antza, zeñean bere odolarekin erosi ginduen.  
 G. Zenbat modutan baliatzen da Kristaba señaile onetaz?  
 E. Bitan, zeñak diran ziñatzea, ta Santiguatzea.  
 G. Zer da ziñatzea?  
 E. Eskuiko beatz andiaz hiru gurutze egitea, lenbizikoa bekokian, Jainkoak libra gaitzan pensamentu gaiztoetatik, bigarrena aoan, Jainkoak hitz gaiztoetatik libra gaitzan, hirugarrena bularrean, Jainkoak egite, ta nai gaiztoetatik libra gaitzan esaten duela: *Gurutze Santuaren siñalagatik geren etsaietatik libra gaitzatu gure Jaungoikoa.*  
 G. Zer da Santiguatzea?  
 E. Gurutze bat egitea eskuieko beatz biakin, bekokitik bularrea, ta ezkerreko sorbaldatik eskuiekora, esaten duela: *Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren izenean.*  
 G. Noiz siñale au egitera oitu bear du?  
 E. Beti edozein lan asitzean, edo neke, edo tentazioren batean, edo perillean arkitzean, berezkiro oietik jaikitzean, etxetik irtetean, Elizan sartzean, jaterako, ta oierakoan.  
 Ondo diozu; baña oitu zaitez zinatzerakoan debozioz, eta astiro, ez lasterka, ta siñuka, gurutzeen ordean, demonioari atsegin arrerazotzen diotzula, zeñak orrelaxe desegiten du Kristiabaren arma indarsuenetatik bat. Baña esadazu orain.



G. Zer fiñetarako egin zuen Jainkoak gizona?

E. Jainkoa bera ezagutu, ta onesteko Bizitza onetan, eta gero bera ikusteko, ta gozatzeko bestean Zeruan.

G. Zer da Jaungoikoa?

E. Da esan al, eta gogora al ditekean gauza, edo izan bat andiena, ta miragarriena, Jaun bat fin gabe, ahalsu, jakinsu, justua, gauza gustien asiera, ta fiña.

G. Non dago Jaungoikoa?

E. Leku gustian, berezkiro Zeruan, eta Aldareko Sakramentuan.

G. Zer du bada berezkiro Zeruan, eta Aldareko Sakramentuan?

E. Jainkoa Jainko danez dago leku guztian; baña Gizona danez, dago bakarrik Zeruan, eta Altareko Sakramentu guztiz Santuan. Baña Jainkoa egon arren surtan, erretzen ezta: egon arren loitan, zikintzen ezta, zeren dan espiritu uts garbia.

G. Zein da Hirutasun, edo Trinitate guziz Santua?

E. Aita Jainko, Seme Jainko, Espiritu Santu Jainkoa, hiru Persona bana dira, edo distintoak, ta Jainko egiazko bakar bat.

G. Aita Jainkoa da?

E. Bai, Aita.

G. Semea, Jainkoa da?

E. Bai, Aita.

G. Espiritu Santua Jainkoa da?

E. Bai, Aita.

G. Ta hiru Jainko dira?

E. Ez, Aita, ezpada Jainko egiazko bakar bat.

G. Ta Aita Semea da?

E. Ez, Aita.

G. Espiritu Santua Aita, edo Semea da?

E. Ez, Aita, zeren hiru Persona bana diran, edo distintoak, ta hirurak diran Jainko egiazko bakar bat.

G. Aita lenago da, Seme, edo Espiritu Santua baño?

E. Ez, Aita, zeren hirurak berdin, eta bat, edo igualak diran, ahaltasun, jakintasun, betitasun, eta Jainkotasunean.

G. Ama Birjiña Hirutasun Santuko Persona da?

E. Ez, Aita, zeren hiru diran bakarrik Persona Jainkozkoak, eta Ama Birjiña da Persona gizonagandiko, edo humanoa, izan arren Jainkoak egin duen onena.

G. Zer esan nai du, Jainkoa dala Saritzallea?

E. Bazoitzari ematen diola bere saria bizitza onetan, edo bestean.

G. Hiltzen diranen animak nora dijoaz?

E. Jainkoaren grazian hiltzen badira, kito, edo ezpadaramate batere zorrik, dijoaz zuzen Zerura: baldin zorrik badaramate, dijoaz Purgatorio-ra: ta baldin pekatu heriozkoan hilzen badira, doaz infernura.

G. Zeruak, eta infernuak iraun bear dute betiko?

E. Bai, Aita, Jainkoa, Jainko dan artean, doatsua doatsu, ta kondentatua kondentatu izango da.

G. Jainkoak badu gorputzezko irudirik, guk bezala?

E. Jainkoa danez, ezta, zeren dan Espiritu uts garbia; baña gizona danez badu.

G. Zein hiru Personetatik egin zan Gizon?

E. Bigarrena, zeña da Semea, zeñari Gizon egiñik deritza Jesu Kristo.

G. Aita, edo Espiritu Santua Gizon egin bazan?

E. Ez, Aita, ezpada Semea bakarrik.

G. Non egin zan Gizon?

E. Ama Birjiña Maria guziz Santaren Sabel, edo errai garbietan, bera Birjiña garbi zala, Semea egin baño len, egitean, eta egin ezkerro.

G. Nola izan zan egite miragarri ori?

E. Espiritu Santuaren egitez, ta birtutez modu onetan.

1. Egin zuen Jainkoak gorputz bat Ama Birjiñaren erraietako, edo bihotzeko odol garbi gutxi batekin.

2. Ezerezetik egin zuen anima bat, besteak bezala.

3. Batu ziozkan alkarri anima, ta gorputza: ta au da Gizatasuna.

4. Hirutasun Santuaren bigarren Personan, Jainkotasuna Gizatasunarekin unitu, edo lotu zan, eta geratu zan Jesu Kristo Jainko, ta Gizon egiazkoa, edo Jainkoaren Semea gure aragiz janzirik, eta Ama Birjiñaren Seme egiñik, zeñegandik jaio zan mirari andi batekin.

Ederki diozu: ta orixe da aragi artzearen, edo Enkarnazioko, ta jaiotzko gure Jaunaren egiteko miragarria.

Gauza oriez gañera jakin bear dezu, nola Jesu Kristok dituen izate, edo naturaleza bi, bata Jainko egiazkoarena, bestea Gizon egiazkoarena, ta orobat adimentu bi, ta borondate bi; baña ez Persona bi, ezpada bat bakarra, zeña dan Jainkozkoa.

G. Jesu Kristok Aitarik badu?

E. Jainko danez, du Aita betikoa, ta Amarik ezta: Gizona danez, du Ama, ta Aitarik ezta; zeren San Josef guziz dohatsua Aita gure ustezkoa zan, baña ez egiazkoa.

G. Zergatik Jainkoa Gizon egin zan, eta hill zan?

E. Gu pekatutik libratzeagatik, ta Bizitzaren exenploa ematearren.



G. Jesu Kristo Jainkoa bada, nola hilltzan gurutzean?

E. Zeren Jainko, ta Gizon nola zan, Gizona zan bezanbatean hilltzan, baña ez Jainkoa zan bezanbatean: anima gorputzagandik berezi zan, anima, ta gorputza Jainkotasunari bat egiñik, edo uniturik geratzen zirala: hirugarren egunean piztu zan, biurtzen zala anima gorputzarekin bat egitera: ta berrogeigarrenean Zerura berez igo zan, ta dago jarririk Aita betikoaren alde eskuian.

G. Zer da orrela Aita Jainkoaren eskuian egotea?

E. Aitak adinbat gloria, Jainkoa danez, idukitzea, ta iñork ere bestek baño andigoa Gizona danez.

G. Kristok noiz etorri bear du biziak, eta illak juzgatzera?

E. Munduaren azkenean: eta orduan hill guziak piztu bear dute len zituzten gorputz, eta anima aiekin berakin.

G. Zenbat dira Sakramentuak, eta nork egin zituen?

E. Dirade zazpi, ta egin zituen Kristok.

G. Zer egiten dute Sakramentuak gure animetan?

E. Ematen dute grazia, ta hiru birtute Jainkoaganonzkoak, Fede, Esperanza, ta Karidadea.

G. Zer da Grazia?

E. Da izate Jainkozko bat, Jainkoaren hume, eta Zeruko heredero, eta jabegai egiten gaituena.

G. Zer da Fedea, edo sinistamena?

E. Ikusi ezteguna siñistea.

G. Zer da Esperanza?

E. Betiko gloriaren ustea, Jainkoaren grazia, ta gure egite onakin batean, idukitzea.

G. Zer da Karidadea?

E. Jainkoa gauza guzien gañean onestea, ta gure lagun urkoa geren buruak bezala, guk aiei egiñaz, berak guri egitea nai degun bezala.

G. Premia andirik badegu, egite, edo aktu Fede, Esperanza, ta Karidadezkorik egiteko?

E. Bai, Aita, ta ezta asko bizitzan bein, edo bost urtetik bostera, ezipada maizago, edo sarriago egitea.

G. Ta nola jakingo dezu zuk egite, edo aktu oriek egiten?

E. Oituz goizetik, Jainkoari eskerrik asko eman, ta egun artako bearrak, edo obrak eskeñtzean, esatera: *Nere Jauna, ta Jainkoa, nik siñisten det biziro zure Eliza Santuari zuk erakusi diozun guztia, ta ark niri erakusten dirana: Uste det, zure miseriakordiatatik, bitarteko dala zure grazia, ta nere alegin laburak, emango didazula Zeruko gloria. Onesten zaitut gauza guzien gañean, eta nere*

*proximoa nere burua bezala. Ematen dizut hitza milla bizitza galtzeko lenago zu ofenditu baño. Zurekin batean gaur egiten dedana, nere pensamentu, hitz, gogo, ta alegin guziak izan bitez, zure honra, ta atsegiñik andienerako. Nere estaduak agintzen diran gustia nai det egin, bai ta erabazi ere ahal ditudan induljenzia, ta barkazio guziak nere onerako, ta animen sufrajorako.*

Ederki diozu, orrelaxe egizu goizoro, baña salbatzeko, hitzetan diozun ori, egin bear dezu obretan. Orain esadazu:

G. Zertarako egiña da Bateoko Sakramentua?

E. Pekatu jatorrizkoa, edo orijinala kentzeko, ta beste bateatu artean egiñikako guziak, ta aiei dagozkan, edo eranzuten zitzen penak.

G. Ta nork etsi etsian batea dezake?

E. Edozein gizon, edo Emakume arrazoiez argituak, bateatzeko asmoz, edo intenzioz ura botatzen diola esanaz: Nik bateatzen zaitut Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren izenean.

G. Zertako da Konfirmazioko Sakramentua?

E. Sendotzeko, edo konfirmatzeko, ta indarsu egiteko gu Bateoan artu genduen Fedean.

G. Zertako da Penitenziako Sakramentua, edo Konfesioa?

E. Bateo Santu ezker egiñikako pekatuak barkatzeko.

G. Ta bada pekatu ain ikaragarririk, zeñak barkatzen ez diran Sakramentu onetan?

E. Ez, Aita, diran gustiak, txit asko, eta itsusiak izan arren ere barkatzen dira Konfesioan.

G. Zer bear da, edo zenbat gauza bear dira bat ondo konfesatzeko?

E. 1. Zure barren, edo konzienziako pekatuen kontu, edo examen alegiñezkoa zinzero egitea. 2. Damu bihotzekoa gogo sendo batekin ez geiago pekatu egiteko. 3. Damu orrekin egiaz, eta argiro pekatu guziak esatea, ez geitu, ez gutxitu, ta ez ezer estaliaz, eta Konfesorearen agindeak egitea.

G. Ta asko izango da Konfesoriar aitortzea gustiak batean, edo esatea: egin ditut juramentuak, esan ditut gaitzkiak, &c.?

E. Ez, Aita, aitortu bear dizka diranak diran bezala, kontu jakiñaz, al badu, zenbat diran, eta ori ezin badu, zenbat diran *gutxi gora bera*.

G. Nola konfesa diteke gizon pekatuan loturik gaizki dagoan bat, edo andre galdu, edo oiturazko pekatari bat?

E. Bere pekatuen kontua ateraaz, edo egunka, asteka, edo hilloro, gutxi gora bera: ta orrela ere ezin badu, askoko da, oitura gaiztoaren denbora esatea.

G. Zer da onesdamua, edo Kontrizioa?



E. Gauza naturalaz gañeko animaren damu bat, ofendituaz danagatik Jainkoa, zein dan gure Jainko, ta gure Aita guziz [...]gusu, ta onesgarria.

G. Zer da izudamu, edo Atrizioa?

E. Damu bat ofendituaz Jainkoa zeren onai Zerua, ta gaiztoai infernua ematen dien.

G. Konfesoak esan dezake konfesioan enzun, edo aditutako pekatirik, edo beste gauzarik, zeñetatik aitorleari datorkion kalterik?

E. Ez, Aita, ta erreko baluke ere bizirik.

G. Zertako da Komunioko Sakramentu, edo Eukaristia Aldarean dagoena?

E. Bear dan bezala arturik, gure animen janari, edo sustentu izan [...]; eta grazia geitu dizagun.

G. Zer artzen dezu Komunioko Sakramentuan?

E. Jesu Kristo gure Jauna, Jainko, ta Gizon egiazkoa, ain goia, ahal-tia, nola Zeruan dagoen.

G. Noiz jartzen, edo sartzen da Kristo hostian?

E. Konsagrazioko hitzak Apaizak esanda.

G. Ta orduan geratzen da len zegoen ogirik, edo ardorik?

E. Ez, Aita, ezta geratzen, ez ogiaren, ta ez ardoaren izanik, orien iduriak baizik, zeñak diran usaia, ikusia, ta iritsia. Ogia biurtzen da Kristoren gorpuz, ta [...]